

Ordiziako Udala

2022GOIO0006

**2022an tokiko taldeen urteurrenetako programa bereziak eta kultur proiektu-programak gauzatzeko diru-laguntzak emateko oinarriak**

***Bases para la concesión de subvenciones para la realización de proyectos y programas culturales y programas especiales de aniversarios de agrupaciones locales en el 2022***

## **1. artikulua. Xedea.**

Deialdi honen helburua da, 2022. urtean zehar Ordiziako irabazi asmorik gabeko kultur erakundeei beraien kultur proiektuen eta urteko programen garapena eta 2022. Ekitaldian urteurren berezia ospatzen duten taldeen programa bereziak finantzatzera zuzendutako Diru-laguntzen emakida baldintzak arautzea.

## **Artículo 1. Objeto.**

*Es objeto de la presente convocatoria la regulación de las condiciones de concesión de subvenciones destinadas a financiar el desarrollo de programas anuales y proyectos culturales a asociaciones culturales sin ánimo de lucro de Ordizia, así como a agrupaciones que cumpliendo un aniversario singular presentan un programa especial, durante el ejercicio 2022.*

Dirulaguntzaren esleipena norgehiagoka bidezkoa izango da.


*La adjudicación de la subvención será por concurrencia competitiva*

Ekimenak garatzea lagunduko da diruz, eta horretarako, honako baldintza hauek bete behar dituzte interesa duten erakundeek, Ordiziako Udalak edo haren erakunde autonomoak egiten dituzten ekimenen osagarri izatea edo haiek ordezkatzera, edo erabilera publikoko edo gizarte-intereseko jarduerak izatea, beti ere, deialdi honetan ezartzen diren baldintzak kontuan izanda.

*Será subvencionable el desarrollo de programas, que siendo complementarias o sustitutivas a las iniciativas que lleva a cabo el Ayuntamiento de Ordizia o sus organismos autónomos, conlleven una finalidad de utilidad pública o interés social y cumplan las condiciones que se establecen en la presente convocatoria.*

Ez dira aintzat hartuko beste udal partida edo deialdietatik Diru-laguntza jasotzen duten ekintzak. Bere izaera eta helburuak direla eta udalaren beste arlo edo erakunde autonomo batzuen beste programa baten edo batzuen bidez bideratu behar diren eskaerak, dagokion erakunde edo udal arloetara bideratuko dira eta horren berri emango zaio interesatuari.

*No se contemplarán las iniciativas que estén subvencionadas por vía de otras partidas o convocatorias municipales. Las iniciativas que debido a su carácter o finalidad les corresponda la inclusión en otros programas de alguna otra sección municipal serán trasladadas a la entidad o sección municipal pertinente, dando cuenta de ello a la persona interesada.*



## 2. artikulua. Onuradunak.

Kultur ekimenerako Diru-laguntzak: Diru-laguntza eskatu ahal izango dute, bere kultur jarduerak deialdi honetan zehaztu den arloan garatzen dituzten irabazi asmorik gabeko erakunde nahiz pertsona fisikoek, beti ere bere jardun eremua Ordizian badago.

Halaber, Ordiziakoak ez diren entitateek ere eskatu dezakete diru-laguntza, baldin eta kultur ekimeneen bat burutzen badute Ordizian, izena emanda badaude dagokien Elkarte Erregistroan eta Udalerrirako interesgarriak direla iritzitako kultur jarduerak baldin badira.

Urteurreneko Diru-laguntzak: urtemuga berezia dela-eta (25, 50, 75, 100 urteurrena) programa bereziak garatzen dituzten eta jarduera-eremua Ordizian duten irabazi-asmorik gabeko erakundeek eskatu ahal izango dute diru-laguntza.

Onuradunek beti ere, Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikulua ezartzen dituen betebeharrak guztiak bete beharko dituzte.

## 3. Artikulua. Eskariak aurkezteko lekua eta dokumentazioa.

Eskaerak egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu behar dira:

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/7.00/SolicitudDetalle.aspx?id=CSEC>

## Artículo 2. Personas beneficiarias.

*Ayudas proyectos culturales: Podrán solicitar subvención aquellas entidades o personas físicas sin ánimo de lucro que desarrollen actividades culturales en el campo especificado en la presente convocatoria, que tengan su ámbito de actuación en Ordizia.*


*Asimismo, también podrán optar por la subvención las entidades que no pertenezcan a Ordizia pero que realicen actividades culturales en esta localidad, siempre y cuando estén debidamente inscritas en el Registro de Asociaciones que les corresponda, y planteen actividades culturales consideradas de interés para el municipio de Ordizia.*

*Ayudas aniversarios: Podrán solicitar subvención aquellas entidades sin ánimo de lucro que desarrollen programas especiales con motivo de un aniversario singular (25, 50, 75, 100 aniversarios), y que tengan su ámbito de actuación en Ordizia.*

*Las personas o entidades beneficiarias deberán cumplir todas las obligaciones establecidas en el artículo 14 de la Ley General 38/2003, sobre las Subvenciones.*

## Artículo 3. Lugar y documentación a presentar.

*Las solicitudes se deberán realizar a través de la sede electrónica:*



Ordiziako Udala

2022GOIO0006

helbidean. Halaber, urriaren 1eko Administrazio Publikoetako Prozedura Arrunta arautzen duen 39/2015 Legearen 16. artikuluan ezartzen den eran aurkeztu ahal izango dira. Eskariak, diru-laguntza deialdi hau DDBN-aren bidez oinarri hauek Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta 30 eguneko epean aurkeztu beharko dira, biharamunetik kontatzen hasita.

*Asimismo se podrán presentar en los términos previstos en el artículo 16 de la Ley 39/2015 de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas las solicitudes en el plazo de 30 días contados a partir del día siguiente a la fecha de la publicación de la presente convocatoria en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa. La publicación en el boletín Oficial de Gipuzkoa se realizará a través de la BDNS.*

Eskariak Kultura Departamenduan tramitatuko dira.

*Las solicitudes serán tramitadas por el departamento de Cultura.*

**a) Eskariak eta aurkeztu beharreko agiriak:**

**a) Solicitudes y documentación a presentar:**

Eskariak Dirulaguntza eskari normalizatuaren bidez egingo dira.


*Las solicitudes se formularán mediante Impreso de solicitud normalizado de subvenciones.*

Ordiziako Udalak, NISAEren Nodoaren bidez, beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu interesdunek administrazioaren esku jarri dituzten datuei buruz interesdunak horren aurka egiten ez badu. Horretaz gain, euren jarduerak Kulturaren eskumenen arloan egiten dituzten irabazi asmorik gabeko erakunde eta elkarteentzako dirulaguntzaren tramitazio administratiboa egiteko beharrezkoak diren egiaztapen guztiak ere egingo ditu. Horregatik, elkarreragingarriak izan daitezken datuak eskatzeari utziko zaio, baldin eta interesduna datu horiek erabiltzearen aurka agertzen ez bada berariaz; kasu horretan, dagozkion datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko ditu.

*El Ayuntamiento de Ordizia mediante el NODO de NISAE, va a realizar las comprobaciones y consultas necesarias de los datos de las personas interesadas que obren en poder de la Administración, salvo que la persona interesada se opusiera a ello, así como cualquier otra requerida para la tramitación administrativa de la presente subvención destinada a las entidades y asociaciones sin ánimo de lucro que realicen sus actividades en el ámbito de competencias del Área de Cultura. Es por ello que se dejarán de solicitar datos que puedan ser interoperables, siempre y cuando la persona interesada no se oponga de forma expresa al uso de los mismos, en cuyo caso, deberá aportar los datos o documentos correspondientes.*

Administrazio publikoen arteko

*El fundamento para la intermediación*



## Ordiziako Udala

datu bitartekaritzarako oinarria urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluan zehazten da, non aitortzen baita herritarrek eskubidea dutela ez aurkezteko edozein administrazio egindako dokumentuak, jatorrizko dokumentuak, ezarri beharrekoa den araudiak eskatzen ez dituen datuak edo dokumentuak, edo interesdunok aurretik edozein administrazio emandakoak.

Era berean, 40/2015 Legearen 155. artikulua adierazten duena gogora ekarriz, administrazioek elkarri lagundu behar diote datu-trukean, eta herritarrei buruzko datuak haien esku daudenak, eman behar dituzte.

Horren ildotik, Ordiziako Udalak honako baldintza hauek egiaztatuko ditu deialdi honetako dirulaguntza eskuratu ahal izateko, NISAEren, datuen eta beste administrazio batzuen bitartekaritzarako plataformaren zerbitzuen bidez:

- Elkartearen ardura duen pertsonaren NANA edo agiri baliokidea.
- Zerga betebeharrak beteak dituela.
- Gizarte Segurantzaren aurreko betebeharrak egunean dituela.

Ordiziako Udalak ofizioz egiaztatuko du udalarekiko betebeharrak betetzen direla.

2022GOIO0006


*de datos entre las Administraciones Públicas se concreta en el artículo 28 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, donde se reconoce el derecho de la ciudadanía a no aportar los documentos que hayan sido elaborados por cualquier Administración, documentos originales, datos o documentos no exigidos por la normativa reguladora aplicable o que hayan sido aportados anteriormente por el interesado a cualquier Administración.*

*Asimismo, existe el deber de las Administraciones de colaborar, tal y como indica el Artículo 155 de la Ley 40/2015 en el entorno del intercambio de datos, debiendo facilitar los datos relativos de la ciudadanía que obren en poder de estas.*

*En este sentido, el Ayuntamiento de Ordizia va a verificar los siguientes requisitos para acceder a la subvención de esta convocatoria desde los servicios de la plataforma de intermediación de datos y otras administraciones, NISAE:*

- DNI o documento equivalente de la persona responsable de la entidad.
- Hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias.
- Hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones frente a la Seguridad Social.

*La certificación de estar al corriente con el Ayuntamiento de Ordizia se realizará de oficio.*



**Ordiziako Udala**

2022GOIO0006

Hona hemen Eusko Jaurlaritzako Elkartearen Erregistro Nagusiaren bidez egiaztatuko dituenak:

*Se comprobarán a través del Registro General de Asociaciones de Gobierno Vasco:*

- Eusko Jaurlaritzako Elkarte eta Entitateen Erregistroan inskribatuta dagoelako egiaztatzea.
- Eskaera egiten duen erakundearen estatutuak.
- *Certificado de inscripción en el Registro General de Asociaciones del Gobierno Vasco.*
- *Estatutos de la entidad solicitante*

Era berean, Udalak ofizioz egiaztatuko du, Ordiziako Udaleko elkartearen erregistroan izena emanda duten elkarteekiko, ondorengoak:

*Del mismo modo, el Ayuntamiento verificará de oficio, respecto de aquellas asociaciones que estén inscritas en el registro de asociaciones del Ayuntamiento de Ordizia::*

- Identifikazio fiskaleko kodea
- *Código de Identificación Fiscal.*

Ezin bada datuen artekaritza plataformen bidez edo hartarako gaitutako bestelako sistema elektronikoen bidez kontsulta egin, salbuespen moduan eskatu ahal izango zaio eskatzaileari dokumentazio hori aurkezteko.

*En el caso en que no fuera posible la realización de la consulta a través de las plataformas de intermediación de datos u otros sistemas electrónicos habilitados al efecto, se podrá solicitar excepcionalmente a la persona solicitante que presente la documentación en cuestión.*

Eskabidearekin batera, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

*Deberán acompañarse a la solicitud los siguientes documentos:*

—Diru-laguntza eskatzen duen erakundearen curriculum: Kideak, helburuak, egiten dituen jarduerak, etab.


*—Curriculum de la entidad solicitante: Componentes, objetivos, actividades desarrolladas, etc...*

—Eskatzaileak zabaldutako kontu korrante baten jabe dela erakusten duen agiria banku edo aurrezki kutxa batek emandakoa, araututako ereduen arabera.

*—Documento expedido por una entidad bancaria o de ahorro, que certifique la titularidad de una cuenta corriente abierta por el solicitante, según modelo normalizado.*

—Bestelako erakunde, organismo eta *—Declaración sobre solicitudes de*





**Ordiziako Udala**

2022GOIO0006

abarri Diru-laguntzak lortzeko egindako eskaeren aitortpena, edota, halakorik balego, jasotzen dituzten Diru-laguntzaren aitortpena.

*subvención realizadas ante Instituciones, Organismos, etc., o en su caso de las que estuvieran otorgadas*

- Elkarteak ez duela bazterketarik egiten adierazten duen agiria

*- Documento que justifique la no discriminación por parte de la asociación.*

Edozein kasutan, aurreikusitako ekimenari dagokion dokumentazioaz gain, entitate eskatzaileei behar besteko informazio osagarria eskatu ahal zaie aurkeztutako ekimena behar bezala baloratu ahal izateko.

*Además de la documentación referida a la iniciativa prevista, se podrá requerir a la entidad solicitante que facilite la información complementaria que se estime oportuna para valorar adecuadamente la iniciativa en cuestión.*

## **b) Likidazioa.**

## **b) Liquidación.**

Diru-laguntza ordaindu ahal izateko 2023ko urtarrilaren 31 baino lehen, agiri hauek aurkeztu behar dira alde zuzenetatik:


*Previamente al abono de la subvención y antes del 31 de enero de 2023 para proceder a la liquidación de subvenciones anuales, deberá presentarse la siguiente documentación:*

a) Jarduketa memoria, diru laguntza ematean jarritako baldintzak bete izana frogatuko duena, zer jarduera burutu diren eta zer emaitza lortu diren adierazita. Gainera, bidezko denean, partaideen datuak adieraziko dira, sexua aipatuta eta, ahal den neurrian, datu horien azterketa eta interpretazioa.

*a) Una memoria de actuación justificativa del cumplimiento de las condiciones impuestas en la concesión de la subvención, con indicación de las actividades realizadas y de los resultados obtenidos; se incluirán, cuando sea pertinente, los datos de participación diferenciados por sexo, así como, en la medida de lo posible, el análisis y la interpretación de los mismos.*

b) Jardueran izandako gastu eta inbertsioak sailkatzeko zerrenda. Hartzekoduna eta agiria, zenbatekoa, egite data eta, hala bada, ordainketa data adierazi behar dira. Diru-laguntza aurrekontu baten arabera ematen bada, zein desbiderapen izan den adierazi behar da.

*b) Una relación clasificada de los gastos e inversiones de la actividad, con identificación del acreedor y del documento, su importe, fecha de emisión, y en su caso fecha de pago. En caso de que la subvención se otorgue con relación a un presupuesto estimado, se indicarán las*



Ordiziako Udala

2022GOIO0006

*desviaciones acaecidas.*

c) Diruz lagundutako jarduketa finantzatu duten bestelako diru sarrera edo laguntzen zerrenda xehatua, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

*c) Una relación detallada de otros ingresos o subvenciones que hayan financiado la actividad, con indicación de su importe y su procedencia.*

d) Egindako lanaren egiaztapen eta lekuko gisa baliagarri izango den dokumentazio grafiko edo ikus-entzunezkoa.

*d) Documentación gráfica o audiovisual que sirva para acreditar y testimoniar la labor realizada.*

Diru-laguntza ematen duen organoak behar adina frogagiri egiaztatuko du, Diru-laguntza behar bezala erabili dela zentzuz agerian uzteko beharrezkoak diren guztiak, unitate moneta laginketa teknikak erabiliz. Horretarako, berak hautatutako gastu frogagiriak bidal ditzala eskatuko dio onuradunari. Diru-laguntza eman duen organoak egiaztatuko du Diru-laguntzaren zuritzea egokia izan ote den, eta Diru-laguntza emateko oinarrian izan zen jarduera gauzatu edota helburua bete ote den.

*El órgano concedente comprobará a través de las técnicas de muestreo de unidades monetarias, los justificantes que estime oportunos y permitan obtener evidencia razonable sobre la adecuada aplicación de la subvención, a cuyo fin requerirá a la persona beneficiaria la remisión de los justificantes de gastos seleccionados. El órgano concedente comprobará la adecuada justificación de la subvención, así como la realización de la actividad y el cumplimiento de la finalidad que determinen la concesión o disfrute de la subvención.*

Deialdi honen aplikazio-esparrutik kanpo geratuko dira beren izaeragatik edo xedeagatik sustapen eta zabalkunde kulturalaren jardun-eremuetako ezeinekin zuzenean zerikusirik ez duten jarduerak edo programak.


*Quedan excluidas del ámbito de aplicación de la presente convocatoria aquellas actividades o programas que por su naturaleza u objeto no guarden relación directa con ninguno de los ámbitos de actuación de la promoción y difusión cultural.*

Gainera, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Lege otsailaren 18koan ezarritakoa kontuan hartuta, ezingo dira Diru-laguntza hauen onuradun izan:

*Además considerando lo establecido en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, no podrán beneficiarse de estas subvenciones:*

— Kideak hautatzeko prozesuan

*— Las asociaciones y organizaciones que incurran en discriminación por*



Ordiziako Udala

2022GOIO0006

sexuaren arrazoiz diskriminazioa egiten duten elkarte edo organizazioak.

*razón de sexo en el proceso de selección de personas candidatas.*

— Emakumeek gizonetik berdintasunean parte hartzea eragozten edo zailtzen duten jarduerak antolatzen dituzten elkarteak.

*— Las asociaciones organizadoras de actividades en las que se impida o dificulte la participación de las mujeres en igualdad respecto de los hombres.*

— Sexuaren arrazoiz diskriminazioa egiteagatik santzio administratiboa edo penala jaso duten pertsona fisiko edo juridikoak, santzio hori indarrean dagoen denboran.

*— Las personas físicas o jurídicas con sanción administrativa o penal por haber incurrido en discriminación por razón de sexo, durante la vigencia de dicha sanción.*

#### **4. Artikulua. Eskariak baloratzeko irizpideak.**

#### **Artículo 4. Criterios de valoración de las solicitudes.**

Diru-laguntza eskuratu ahal izateko, erakundeek ondoren adieraziko diren irizpide eta baremoekin bat etorriko den puntuazioa lortu beharko dute:

*Para acceder a la subvención, las entidades deberán obtener una puntuación conforme a los siguientes criterios y baremos:*

a) Proposatutako programaren ezaugarriak: 40 puntu gehienez ere, ondorengo aspektuak kontuan izanik:

*a) Características del programa propuesto: Un máximo de 40 puntos, teniendo en cuenta los siguientes aspectos:*

a.1) Programak garatzen den eremu espezifikuari egiten dion ekarpena. (10)

*a.1) Aportación que realiza el programa al ámbito específico en que se desarrolla. (10)*

a.2) Aurrera eramango den programaren hartzaileak, beste erakunde, herritar nahiz kultur eragileren inplikazio maila. (5)

*a.2) Destinatarios del programa a desarrollar, proyección humana del programa, nivel de implicación de otras entidades, ciudadanos/as y agentes culturales. (5)*

a.3) Proposatutako programaren ibilbidea eta finkatzea. (5)

*a.3) Trayectoria y afianzamiento del programa propuesto. (5)*


a.4) Ekintza horrek erdiguneaz gain auzoetan eragina izatea. (5)

*a.4) Que la actividad afecte no solo al centro sino también a los barrios del municipio. (5)*

a.5) Egitarauen berrikuntzak eta egitarau berriak txertatzea. (10)

*a.5) Inclusión de novedades en los programas y de nuevos programas.*





(10)

a.6) Proposatutako jardueretan kanpoko jatorria dutenen parte-hartzea bultzatzeko bideak martxan jartzea.(5)

*a.6) establecer canales para promover la multiculturalidad en las actividades propuestas. (5)*

b) Erakundearen irmotasuna eta ezaugarriak: 40 puntu gehienez ere, ondorengo aspektuak kontuan izanik:

*b) Solidez de la asociación y características de la misma como máximo 40 puntos, considerando los siguientes aspectos:*

b.1) Udalaren ekimenetan parte hartzea. (15)

*b.1) Participar en las iniciativas del Ayuntamiento. (15)*

b.2) Erakunde eskatzailearen dedikazioa eta duen giza taldea. (15)

*b.2) Dedicación de la entidad solicitante y su equipo humano. (15)*

b.3) Urtean zehar antolatzen dituen ekintzak. (10)

*b.3) Actividades que organiza durante el año. (10)*

c) Erakundearen finantza baliabideak; 10 puntu. Aurkeztutako aurrekontua jarduera edo proiekturako egokia izatea.

*c) Recursos financieros de la entidad; 10 puntos. Adecuación del presupuesto al proyecto presentado.*

Edonola ere, eskatzaileek gutxienez 45 puntu lortu beharko dituzte, programa honetan jasotako Diru-laguntzak eskuratu ahal izateko.

*En todo caso, los solicitantes deberán obtener un mínimo de 45 puntos para poder conseguir las subvenciones recogidas en el presente programa.*

Nolanahi ere, aurreko irizpideetan baloratu ez diren bestelako herri intereseko irizpideak kontuan hartzeko aukera izango da.

*De todos modos, cabe la posibilidad de tener en cuenta otros criterios que se consideren de interés del municipio.*

## **5. artikulua. Aurkeztutako eskaeren akatsak zuzendu.**


## **Artículo 5. Subsanción de defectos en la solicitud presentada.**

Aurkeztutako eskaerak akatsak izanez gero, eskatzaileari jakinaraziko zaio eta 10 eguneko epean zuzendu beharko ditu. Hori egin ezean, eskaera aurkeztu duenak atzera egin duela ulertuko da.

*Si la solicitud presentada tuviese defectos, se le notificará al notificante para que en un plazo de 10 días los subsane. En caso contrario, la solicitud se tendrá por desistida por el solicitante.*

## **6. artikulua. Diruz lagunduko ez diren**

## **Artículo 6. No se admitirán como**



Ordiziako Udala

2022GOIO0006

## **gastuak.**

Taldeak edo erakundeak berezko dituen administrazio, antolaketa gastuak, beti ere eta bere konplexutasunagatik, lan horiek egin ahal izateko kanpoko aholkularitza edo administrazioa eramateko langileak kontratatzea beharrezkoa dela irizten denean salbu. Edonola ere, gastu kontzeptu hori ondo justifikatu beharko du onuradunak eta hala onartu beharko du Udalak.

Araudi honetako diru-laguntzak bateragarriak izango dira dena delako erakunde publiko edo pribatuek xede bererako eman ditzaketan bestelako diru-laguntzekin. Edozein modutan, ez da gain finantzaketarik egongo, eta hala gertatuko balitz, diru-laguntza murriztu egingo litzateke. Gain finantzaketa gerora emango balitz, eta dirua itzultzeko beharizanen bat baino gehiago izanez gero, dena delako pertsona edo erakunde onuradunak dagokion parte proportzionala itzuli beharko du Ordiziako Udalak egin dion ekarpena aintzat hartuta.

Bestalde, aurrekontuan zehaztutako gastua baino txikiagoa egiten bada edo ekintza egiten ez bada, dirua itzuli egin beharko da.

## **7. artikulua. Aurrekontua.**

Programa honen helburu diren diru-laguntzetarako esleitutako zenbatekoa 9.900€koa da eta -481.01.334.00.0133 (4.900 €) eta 481.03.334.00.0133 (5.000 €) - zenbakidun partiden kontura finantzatuko da.

## **gastos subvencionables.**


*Costes internos de administración, organización propios del club, asociación o entidad, salvo que, por su complejidad, se considere necesaria la contratación de la oportuna asesoría externa, o la contratación de personal administrativo propio para llevar a cabo dichas tareas. En todo caso, dicho concepto de gasto deberá ser objeto de justificación por parte del beneficiario y de aprobación expresa del Ayuntamiento.*

*Las subvenciones reconocidas por la presente Normativa serán compatibles con cualesquiera otras, concedidas por Organismos Públicos o Privados para el mismo objeto, sin que en ningún caso pueda existir sobrefinanciación, procediendo en tal caso la reducción de la subvención a conceder. En caso de que con posterioridad se generase una sobrefinanciación y concurriese más de una obligación de reintegro por esa causa, la persona o entidad beneficiaria reintegrará la cantidad proporcional que le corresponda en función de la aportación sobre el total que haya efectuado el Ayuntamiento de Ordizia.*

*Por otra parte, si el gasto real es inferior al presupuesto presentado o si no se realiza la actividad, deberá de devolver la diferencia.*

## **Artículo 7. Presupuesto.**

*El importe económico asignado para las subvenciones objeto del presente programa asciende a la cantidad de 9.900 € y será financiado con cargo a las partida presupuestarias « 481.01.334.00.0133 (4.900 €) y*



Ordiziako Udala

2022GOIO0006

481.03.334.00.0133 (5.000€)

Zenbateko hori handitu ahal izango da, Udal Aurrekontuaren Gauzatze Oinarrietan aurreikusitakoarekin bat etorritz.

*Dicha cantidad podrá ser objeto de ampliación, de conformidad con lo previsto en las Bases de Ejecución del Presupuesto Municipal.*

## **8. artikulua. Onuradunen betebeharrak.**

## **Artículo 8. Obligaciones de las personas beneficiarias.**

Diru-laguntzen onuradunek honako betebeharrak bete beharko dituzte:

*Las personas beneficiarias de las subvenciones deberán cumplir con las siguientes obligaciones.*

—Udalean jakinaraztea edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribatutik jaso direla xede bereko diru-laguntzak diru-sarrerak edo baliabideak.

*Comunicar a la entidad concedente la obtención de otra u otras subvenciones, para la misma finalidad procedentes de otra Administración o Ente Público estatal o internacional.*

—Diru-laguntza ematerakoan kontuan hartutako edozein gorabehera objektibo zein subjektibo aldatuz gero, horren berri Udalari jakinarazi beharko dio,


*—Comunicar al Ayuntamiento la notificación de cualquier circunstancia tanto objetiva como subjetiva que hubiese sido tomada en cuenta para la concesión de la subvención.*

— Berdintasuna: 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen berdintasunari buruzkoak, xedatutako printzipio orokorrak betetzea eta hizkuntzaren eta irudien erabilera sexistarik ez egitea. Zehazkiago esanda:

*- Igualdad: cumplir con los principios generales establecidos en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, sobre la Igualdad de Mujeres y Hombres, y no hacer uso sexista del lenguaje y ni de las imágenes y más concretamente:*

Dokumentazio guztiak, publizitateak, irudiak edo materialek hizkuntzaren erabilera ez sexista erabili behar izango dute, emakumeen edozein irudi diskriminatzaile edo estereotipo sexistak saihestu eta sustatu berdintasun-balioekiko irudia, orekadun presentzia, aniztasuna, erantzunkidetasuna eta roletako

*En toda la documentación, publicidad, imágenes y materiales tendrá que hacerse un uso no sexista del lenguaje, descartándose cualquier imagen discriminadora o que basada en estereotipos sexistas y en su lugar fomentar el uso de imágenes igualitarias, con presencia equilibrada, plural,*



Ordiziako Udala

eta genero-identitateetako aniztasuna.

2022GOIO0006

*corresponsable que reflejen la pluralidad de roles y de identidad de género.*

— Proiektuaren azken memoriak diruz lagundutako jardueran parte hartu duten pertsonen eta horretarako kontratatu direnen sexuaren arabera informazioa jasoko du.

*- La memoria final tiene que recoger además del número de personas usuarias de la actividad subvencionada, datos en función del sexo, tanto de las personas usuarias como de las contratadas para la actividad.*

- Euskara: Diruz lagundutako jarduerari buruz, pertsona onuradunak euskara behintzat erabili beharko du ekintzan bertan eta argitaratutako iragarki, ohar, jakinarazpen eta abarretan.

*- Euskara: La persona o entidad beneficiaria de la subvención objeto de la presente convocatoria deberá hacer uso al menos del euskera en la propia actividad y en todos los anuncios, avisos, notificaciones, etc publicados en torno a la actividad subvencionada.*

Era berean diruz lagundutako jarduerak aintzakotzat hartuko ditu Euskararen Udal Ordenantza, Ordiziako Udalaren Euskararen Erabilera Plana, gainerako araudia eta Ordiziako herriaren errealitate soziolinguistikoa.

*Asimismo, para el desarrollo de la actividad subvencionada se prestará atención a los preceptos establecidos por la Ordenanza Municipal del Euskera, Plan de Euskara y demás normativa relacionada, al igual que a la realidad sociolingüística del municipio de Ordizia.*

- Ekintzei lotutako publizitatean Ordiziako Udalaren babesletza adierazi beharko da, ORDIZIA BIZI HERRIA logoa erantsiz.


*- En la publicidad relativa a las actividades deberá constar expresamente el patrocinio del Ayuntamiento de Ordizia, adjuntando el logotipo de ORDIZIA BIZI HERRIA.*

## **9. artikulua. Baldintzak ez betetzea.**

## **Artículo 9. Incumplimientos.**

Diru-laguntza eman ahal izateko ezarri diren baldintzetakoren bat ez dela bete egiaztatzen bada, jasotakoa itzultzea ekarriko du legez dagokion interesekin batera.

*La constatación de la existencia de cualquier supuesto de incumplimiento de las condiciones que motivaron la concesión de la subvención conllevará la obligación de reintegrar las cantidades percibidas más los intereses legales que procedan.*



Ordiziako Udala

2022GOIO0006

## 10. artikulua Erabakia.

## Artículo 10. Resolución.

1.- Eskaerak ezarritako epean jasoko dira.

1.- Las solicitudes se presentarán en el plazo establecido.

2.- Kultura Zerbitzuko teknikariek, eskariak ebaluatu ondoren, ebazpen proposamen bat egingo dute.

2.- El personal técnico del Servicio de Cultura, tras evaluar las solicitudes, presentarán una propuesta de resolución.

3.- Jarraian, ebazpen proposamena interesatuari jakinaraziko zaio, elkarteen kasuan bitarteko elektronikoen bidez eta pertsona fisikoen kasuan paperean, eta 10 eguneko epea izango du alegazioak aurkezteko.

3.- A continuación, se notificará la propuesta de resolución a la persona interesada, en el caso de asociaciones a través de medios electrónicos y en el caso de personas físicas en papel y se le concederá un plazo de 10 días para que presente las alegaciones oportunas.

4.- Ondoren, alkateak ebatziko du. Ebazpena [www.ordizia.eus](http://www.ordizia.eus) webgunean argitaratuko da.

4.- A continuación se resolverá por alcaldía. La resolución se publicará en la página web [www.ordizia.eus](http://www.ordizia.eus).

## 11. artikulua. Ordainketa erak eta epeak.

## Artículo 11. Forma y plazos de pago.

Programa honen kontura emandako Diru-laguntzak bi zatitan ordainduko dira: %60a ebazpena eman eta handik 15 egunera eta gainontzekoa urteko memoria aurkeztu eta onartu ondoren.

El abono de la subvención concedida con cargo al presente programa se realizará mediante 2 pagos, el 60% a los 15 días de la resolución y el resto después de la entrega de memoria anual.


## 12. artikulua. Datuen tratamendua.

## Artículo 12. Tratamiento de datos.

Eskaera aurkezterakoan, eskatzaileak aitortzen du oinarri hauetan ezarritako baldintza guztiak betetzen dituela eta oso osorik onartzen dituela. Era berean, aitortzen du eskaeran jasotako datu pertsonalak bere onespenearekin jaso direla.

En el momento de presentar la solicitud, la persona solicitante reconoce que cumple todos los requisitos establecidos en estas bases y las acepta íntegramente. Asimismo, reconoce que los datos personales recogidos en la solicitud se han recogido con su consentimiento.





**Ordiziako Udala**

Horrez gain, Eskatzaileak bere erantzukizunpean adierazten du eskabidean jarritako datuak egiazkoak direla. Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa (RGPD), datu pertsonalen tratamendua eta zirkulazio askea direla-eta, pertsona fisikoak babesteari buruzkoa betetzeko, jakinarazten dizugu zuk emandako datu pertsonalak Ordiziako Udaleko Eskatzaileen Erregistroan sartuko direla.

### **13. artikulua. Araudia.**

Oinarri hauetan espresuki jaso gabe geratu den orotan honako arauak aplikatuko dira: azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorra, horren garapenerako erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua; eta Ordiziako Udalaren dirulaguntzen Ordenantza Orokorra, 2013ko urriaren 31an onartua.

### **14. artikulua. Errekurtsoak**

Deialdi honen aurka Administrazioarekiko Auzi Errekurtsoa aurkez daiteke bi hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian eta Berraztertze Errekurtsoa deialdi honen ebazpenaren aurka hilabeteko epean.

2022GOIO0006


*Además, la persona solicitante expresa bajo su responsabilidad que los datos aportados en la solicitud son ciertos. En cumplimiento de la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de protección de datos de carácter personal y de garantía de los derechos digitales y el Reglamento 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016 (RGPD), relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos (RGPD), le informamos que sus datos personales se incluirán en el Registro de Solicitantes del Ayuntamiento de Ordizia.*

### **Artículo 13. Normativa.**

*En todo lo no recogido expresamente en las presentes bases, se estará a lo dispuesto en: la Ley 38/2003, General de Subvenciones, de 17 de noviembre, el Reglamento que lo desarrolla, aprobado por el Real Decreto 887/2006, de 21 de julio; y la Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Ordizia, aprobada el 31 de octubre de 2013n vigor.*

### **Artículo 14. Recursos**

*Contra la presente convocatoria cabe interponer Recurso Contencioso-Administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo en el plazo de dos meses y Recurso de Reposición contra la resolución de esta convocatoria en el plazo de un mes.*



**Ordiziako Udala**

2022GOIO0006

Epeak deialdi hau argitaratu eta *Los plazos comenzarán al día*  
biharamunetik aurrera hasiko dira *siguiente a la publicación de esta*  
kontatzen. *convocatoria.*